

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1148

IRAGARKIA, 2023ko otsailaren 13koa, Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita honako proiektu hau: Barrundia, Donemiliaga eta Aguraingo udalerrietan «"ST Elgea" delakotik "Arrikruz" (901354600) banaketa- eta maniobra-zentro berrirainoko 30 kV-ko aireko eta lurpeko lotura berria».

Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak 10. artikuluan (2020ko apirilaren 24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak 144. artikuluan (2000ko abenduaren 27ko EHAA) ezartzen dituzten ondorioetarako, eta testuaren azken xedapenetako lehenengoan, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan eta Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, jendaurrean jartzen da jarduketa hau, baita eskatzaileak nahitaez desjabetzekotzat jotzen dituen ondasunen eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakoa ere.

- Eskatzailea: «I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.», helbidea Urartea kalea 2 helbidean duena (Vitoria-Gasteiz).
- Eskaketa: aurreko administrazio- eta eraikuntza-baimena, ingurumen-ebaluazio sinplifikatua eta onura publikoaren deklarazioa.
- Helburua: inguruko energia elektrikoaren horniduraren kalitatea hobetzea.
- Erreferentzia: 01ATY 202200067.
- «"ST Elgea" delakotik "Arrikruz" (901354600) banaketa- eta maniobra-zentro berrirainoko 30 kV-ko aireko eta lurpeko lotura berria»
- Linearen ibilbidea: Barrundia, Donemiliaga eta Agurain udal-mugarteak (Araba).
- Proiektuak ukitzen dituen ondasunak eta eskubideak: iragarki honen eranskinean zehaztutakoak.
- Aurrekontua: 485.527,24 euro.

Horren berri ematen da, guztiek jakin dezaten, eta batez ere lurren jabeek eta proiektuak ukitzen dituen gainerako titularrek jakin dezaten; horien zerrenda iragarkiaren amaieran agertzen da. Proiektua aztertu ahal izango da Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz), dagokion udalean edo Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta meategiak/Energia ataleko proiektuen jendaurreko informazioan:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/energia-meategiak/hasiera/>

Horrez gain, interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte aipatu zentroetan, bi aletan, hogei eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 13a.

Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkaria,
PEDRO RODRIGUEZ DIAZ.

2023ko martxoaren 2a, osteguna

ERANSKINA

ERAGINPEKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

PROIEKTUA: BARRUNDIA, DONEMILIAGA ETA AGURAINGO UDALERRIETAN «"ST ELGEA" DELAKOTIK "ARRIKRUZ" (901354600) BANAKETA- ETA MANIOBRA-ZENTRO BERRIRAINOKO 30 KV-KO AIREKO ETA LURPEKO LOTURA BERRIA»

Udalerria	Finka	Titularra	Poligonoa	Partzela	Izaera - laborea	Afekzioa			
						Euskarri zk.	Euskarri azalera (m ²)	Linearen luzera (m)	Aireko zortasunaren azalera (m ²)
Barrundia	7	Primitivo Diaz de Arcaya Ruiz de Luzuriaga	3	351	Landakoa	T2/T3	13,01	346	3.137
Agurain/Salvatierra	12	Juan Larrion Ruiz de Gauna	1	925	Landakoa	T5	6,76	65	459
Agurain/Salvatierra	17	Primitivo Diaz de Arcaya Ruiz de Luzuriaga	1	910	Landakoa	T7/T8	13,52	245	2.152
Agurain/Salvatierra	27	Beatriz Iraizoz Oyarzun	1	954	Landakoa	T11	3,38	32	210